

Tolosako Aralarko Adiskideak taldeak antolatzen duen XIV Orduko Ibilaldia mendi martxan parte hartu nahi dutenek hiru urte itxaron beharko dute. Izan ere, lau urtean behin, Olinpiadekin batera, egiten da ibilaldi hori. Gogoratu behar dugu Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen dituzten mendietan zehar egiten den txangoa dela, ia 70 km dituen.

Baina lerrook ez ditugu erabiliko aurrerapen hori egiteko, baizik eta ospakizun handi bat iragartzeko. Bai, XIV Orduak ibilaldiak ehun urte beteko ditu heldu den ekainaren 7an. Urteurren historikoa izango da, festa handi batekin biribilduko dutena.

Gogora dezagun 1925eko kirol ekitaldi horrek ikusmin handia sortu zuela Tolosaldeko hamalau mendizalek zeharkaldi zirkularra egitea helburu izan zutenean, Tolosan hasi eta Tolosan bertan amaitu zena. Hurrengo urtean, 1926an, maiatzaren 30ean, martxa hori erreplikatu zen mendizale gehiagorekin. 1943an eta 1967an, Aralarko Adiskideak edo “Los Amigos de Aralar” elkarteak antolatuta, jada ibilaldi neurtu bezala egin zen, lehiarik gabe, biak ibilbide eta izen berarekin.

1972tik aurrera, Montrealgo Olinpiada zela eta, “XIV Orduko Ibilaldia” instituzionalizatu zen olinpiar urteekin kointzidituz, Euskal Herriko mendi ibilaldirik garrantzitsuena eta ezagunena bezala, betiere Aralarko Adiskideak elkarteak antolatuta.

2020an izan ezik, Covid pandemiagatik ez baitzen os-



TOLOSAKO XIV ORDUAK

Tolosaldeko hamalau mendizalek marraztutako zeharkaldiak, ehun urte

 **KIROLAK /** Andoni ARABOLAZA

Heldu den ekainaren 7an, XIV Orduko Ibilaldiak ehun urte beteko ditu. Aralarko Adiskideak mendi taldeak hainbat ekimen antolatu ditu ospakizun horretarako. Mendi martxaren inguruko erakusketa zabaldu da Tolosako Aranburu Jauregian.

patu, milaka mendizale izan dira XIV Orduko martxaren hamahiru edizio «olinpikoe-tan», eta efemeride hori ospatzeko, Aralarko Adiskideak mendi taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu urteurren biribil horren bueltan.

Hartara, joan den astean Tolosako Aranburu Jauregian ibilaldi horren inguruko erakusketa inauguratu zen. Ekainaren 7ra arte ikusgai egongo da bertan; asteartetik larunbatera, arratsaldeko 17.30etik 20.30era.



EZBERDINA

Inaugurazio ofizial horretan makina bat lagun bildu zen eta, oro har, ikusitakoaren inguruan hitz oso onak baino ez zituzten izan. Bai, alde guztietatik begiratuta, erakusketa historiko hori biribila da. Zalan-tzarik gabe, Xabier Agirre da ekimen horren alma matera. Hots, erakusketaren komisa-rioa. Tolosar honek ibilaldiaren inguruan egin duen ikerketa sakona eta dokumentazio lana ikaragarriak dira. Betiere, Ara-larko Adiskideak taldearen la-guntzarekin.

Erakusketaren planteamen-duari dagokionez, Agirre «iraultzaile» bat ikusi dugu; izan ere, ikuspegi ezberdin ba-tekin aurkeztu du bisita hori: «Mendi martxaren historia atzetik aurrera egin dut; hots, 2025ean hasi eta 1925ean ama-it. Urtez urte, gainera. Lortuta-ko materialarekin urte bakoitza ‘apaindu’ dut. Garaiko jatorriz-ko dokumentuak, argazkiak, kartelen bilduma osoa, koadernotxo edo liburuxkak, diplo-mak, ordutegi kontrolen fitxak,

Irudiotan, Tolosako
Aranburu Jauregian
egunotan ikusgai dagoen
erakusketaren lagin bat.
Jon URBE | FOKU

parte-hartzaileei egindako opa-riak eta beste objektu edo do-kumentazio batzuk erakusten ditugu. Esaten dudan bezala, ez da argazkien ohiko erakusketa bat; aipatu ditudan gai edo eduki horiek indar gehiago du-te. Eta ez hainbeste argazkiek».

Horrek guztiak ikerketa lan handia egitera eraman du Agi-rre, eta Aranburu Jauregiak di-tuen areto ezberdinetan aipa-tutako guztia banatuta dago: «Kartel, diploma eta fitxa bana ditu urte bakoitzak, baina, ikus-ten denez, beira-arasetan mar-txa bakoitzean eskatzen ziren betekizunak jasotzen dira. Eta beste batean, izena ematera-

koan mendizaleak jasotzen zi-tuen opariak».

Bestalde, erakusketaren inaugurazioan gai bat hizpide izan zen, eta Agirre komisa-rioak horri azpimarra egin nahi izan zion: «Emakumez-koek egoera ezberdinak bizi izan dituzte. Adibidez, frankis-moaren garaian debekatuta zuten parte-hartzea. Ni saiatu naiz haiek bistaratzten, batez ere, 1943tik aurrera. Hain zu-zen ere, debeku hori saihestu zuen baten argazki bat ikusgai dago. Mendi martxa horretan Maritxu Lasa izan zen lehena. Bitxia da egoera, baina hor da-go bere argazkia».

Argazkiak aipatu ditugunez, aurreratu behar dugu batez ere historikoak azaltzen direla eta ez hainbeste aro garaikidekoak: «Arestian esan dudan bezala, erakusketa hau ezberdina da; ikuspuntu hori eman nahi izan diot. 1925. urteko bost argazki daude, eta hurrengo urtekoa, berriz, bakarra. 1943tik aurrera gehiago daude. Baina gaur egungoak askoz ere gutxiago; horiek guztiak denon eskura

daudelako. Ikerketa batean oi-narrituta egon da lana; hori zen nire helburu nagusia. 1972tik 1988ra hutsune bat da-go irudien aldetik, eta horrega-tik dei bat egin nahi dut, ezer daukateneke pasa diezaguten».

XIV Orduak mendi martxa-ren historiaren erakusketa za-balik dago. Eta berriro diogu: antolatzaileek eginiko lana bi-kain biribilduta dago. Bederen, dokumentazio guztiak hala azaltzen du. Horrez gain, areto batean bideo proiektzio bat da-go modu jarraian.

HITZALDI-PROIEKZIOA

Erakusketarekin batera, Ara-larko Adiskideak mendi tal-deak beste ekitaldi bat antola-tu du ekainaren 5erako: Francisco Tuduriren “XIV Or-duko mendeurrenean” hitzal-di-proiektzioa. Hitzaldiarekin batera, argazkiak eta doku-mentuak proiektatuko dira al-di berean. Jarraian, Pablo Den-daluzek egindako bideo bat ikusi ahal izango da da. Topic-en izango da, arratsaldeko 19.00etan.

1925eko kirol ekitaldi horrek ikusmin handia sortu zuen Tolosaldeko hamalau mendizalek zeharkaldi zirkularra egitea helburu izan zutenean, Tolosan hasi eta Tolosan amaitu

XIV Orduak mendi martxaren historiaren erakusketa zabalik dago Aranburu Jauregian. Antolatzaileek eginiko lana bikain biribilduta dago bertan. Ekainaren 7ra arte izango da